



www.mensajesenredados.com

2023ko otsaila

Eskolapioen Kristau Alkartearen gizarte begirada

ONLINE EROSKETAK

KONTSUMO-DATUAK

Pertsonen **%40k**

online erosketak egiten ditu

Gazteen **%73k**

etxez etxeko janaria eskatzen du

MADRILEN, AMAZON bakarrik:

350-400 mila paquete eguneko

1,5 milioi *Black friday*-an



KLIK BAKARREAN...

**EROSI
ORAIN!**



Online erosketak gora egiten ari dira; *Ecommerce*-ren datuen arabera, kontsumitzaileen %40k online egiten dituzte erosketak, eta %28k *marketplace* batean egiten dituzte astero erosketak.

Datu hauek igotzen ari dira *Ecommerce*-ren arabera etxez etxeko janariaz ari garenean; izan ere, 2022ko bigarren seihilekoaren arabera, espainiarren %61ek etxez etxeko janaria eskatu zuen. Datu hori %73raino igotzen da 18 eta 24 urte bitarteko gazteen kasuan.

Datuek erakusten duten bezala, online kontsumoa oso hedatuta dago pertsona askoren eguneroko bizitzan, erosotasuna eskaintzen baitu, baita aniztasun handiagoa ere produktu bat aukeratzekoan, non denda fisikoek ezin duten lehiatu.

“*GLOVOk milioi askoko salaketa jaso du Madrilen 7.022 langile autonomo faltsu gisa eta 813 langile migratzaile kontraturik gabe lanean izateagatik*”

Kontsumo-eredu berri honek ondorio sozial eta ekologiko handiak ditu, eta horiek kontuan hartu beharko genituzke EROSI botoia sakatu aurretik. Hirietako tokiko ekonomian arazoak sortzen ari da, denda txikitako kontsumoa asko murrizten ari baita, eta bertako saltokiak ixtera behartzen ditu, lehiatu ezin dutelako. Enpresa txikiak dira gehienak, kasu askotan familiakoak, eta pertsonak eta familiak langabezian uzten dituzte.


LAN-BALDINTZAK

Beste arazo sozial handienetako bat enpresa handi horiek eskaintzen dituzten lan-baldintzak dira. Horietako asko salaketak jaso dituzte langileen aldetik, lan-baldintza oso txarrak dituztelako, segurtasun-baliabiderik ez dutelako, lanordu luzeak dituztelako, lan-hitzarmenak ez dituztelako bete, eta komunikabideetan oso presente dauden beste salaketa luze batzuk dituztelako.

Otsailan bertan prentsan ikusi genuen Amazon 2.166 langileren gizarte segurantzaren kondentatu dutela, multinazionalarentzat autonomo faltsu gisa lan egiten zutela frogatu baita. Era berean, Glovok, etxez etxeko banaketa-entresa handiak, 200 milioi isun baino gehiago pilatu ditu, eta urtarilaren amaieran, Glovo Madrili gizarte-segurantzako alta-faltengatik 32,9 milioi euro ordaintzera behartzen zuen epai bat argitaratu zen, 7.022 autonomo faltsu enplegatzeagatik eta 813 langile migratzaile kontraturik gabe edukitzeagatik. Zigor horiek iazko maiatzean “Rider Legea” indarrean sartu aurretik irekitako espedienteen ondoriozkoak dira. Lege horrek enpresako langileek legea indarrean sartu aurretik egiten zituzten lanaldi amaigabeak ere arautu ditu.

AZTARNA EKOLOGIKOA

Sofatik erostearen beste ondorio deigarrienetako bat eskaerak entregatzeko lekura eramateak eta sortutako bilgarriek eragindako kutsadura da. Munduko beste lekuetako gauzak erosten ditugu eta ordu gutxiren buruan gure etxeetako atean ondo bilduta dauzkagu.



Ekintza horien CO2 isurien aztarna ekologikoa oso handia da. Amazonen emisioei erreparatu gero, delivery-enpresek mundu mailan duten kutsadura-ahalmena soma dezakegu. 2018an soilik, Amazonek 44 mila tona CO2 isuri zituen, eta orduan ere EBko bederatzi herrialdeetako isuriak gainditzen zituzten. Baina egoera hori hobetu beharrean, pandemiaren ondorioz urte hauetan emisio horiek handitzen joan dira, 2021ean 71,54 milioi tona karbono dioxido izatera iritsi arte.

Ingurumenerako beste ondorioetako bat hondakinak sortzea da; izan ere, online egindako erosketetan, produktuak plastikozko bilgarri baten barruan etortzen dira, normalean birziklagarria ez dena, zigilatutako kartoizko bilgarri baten barruan, eta eskaera jasotzean zuzenean edukiontzira joaten dira. Etxez etxeko janariarekin gertatzen den bezala, ontziak erabilera bakarrekoak dira, eta oso denbora gutxiko balio-bizitza dute. Madrilen bakarrik, Amazonek 350-400 pakete banatzen ditu eguneko, eta milioi eta erdi pakete lortzen ditu *Black friday* delakoaren truke.

Hiri handietan, kontsumo-bolumen horrek zirkulazio-arazoak sortzen ditu, eta horrek mugikortasuna zailtzen du, banaketa dela eta; izan ere, gaizki aparkatutako autoek eta furgonetek auto-ilarak areagotzen dituzte. Horrek, kasu askotan, arazoak sortzen ditu bide-segurtasunean, eta trafiko-istripuak gertatzeko arrisku handia eragiten die banatzaileei. Gainera, horietako asko behartuta daude beren ibilgailuekin lan egitera, inolako kontrol teknikorik igaro gabe, eta, kasu gehienetan, banakako segurtasun-ekipamendurik gainbegiratu gabe. Egoera larriagoa da *rider*-ren kasuan, eta segurtasun-arazo larriak eta ondorio larriak eragin ditzake istripu bat izanez gero.

+INFO

Amazonen dilema (Salvados).
[Salvados - Temporada 19 - El dilema de Amazon](#)
([atresplayer.com](#))

Internet bidez erostearen ingurumen-kostua (El País).

(39) [REPORTAJE | El coste medioambiental de comprar por internet - YouTube](#)

**HORI GUZTIA AZTERTUTA...
PENTSATZEN JARRAITZEN DUZU HAIN ERRAZA DELA
ZURE SOFATIK KONTSUMITZEA?**